



'SUA' ALURR TALDEAREN IKUSKIZUN BERRIA

Leidor antzokian aukeztuko du Ibarako dantza taldeak emanaldia, azaroaren 16an; sarrerak dagoeneko salgai daude >6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2008-10-16

VIURTEA 1.535.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

IÑAKO GURRUTXAGA ETB3 TELEBISTA KATEKO EDUKIEN ARDURADUNA

«ETB3k euskarazko eskaintzan dagoen gabezia bete nahi du»

TOLOSA Iñako Gurrutxagak «ilusio handiz» hartu du ETB3 kateko edukien arduraduna izateko lana

EZAUGARRIAK «Euskara hutsean emitituko da eta eduki oso erakargarriak ditu», azaldu du Gurrutxagak 2



Jende ugari ibili zen Urkizuko auzo bazkarian; bertan sinatu zuten hitzarmena Udalarekin. HITZA

URKIZU BERPIZTEKO BESTE PAUSO BAT

TOLOSA Urkizu auzoa berpizteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten pasa den larunbatean Alurtxiki auzo elkarteak eta Tolosako Udalak 4



Oraingoan Donostiako La Perla aukeratu zuten aurkezpena egiteko. E.EZEIZA

Tolosa Goxua azokan sei metroko altuera izango duen tarta egingo dute

TOLOSA Hilaren 25ean izango da; urtea amaitu aurretik beste bi azoka gastronomiko izango dira 3


zure-irragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

tolosaldeko hitza. **iragarkilaburrak.com**

iragarkia jartzeko: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com/ 943-65 56 95/ Araba etorb. 5 atzea • Tolosa / Herriko plaza 1 • Leitza webgunean, ostiralero Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

iragarkilaburrak.com

euskarazko iragarki baburren ataria



E Elkarrizketa**IÑAKO GURRUTXAGA** ▶ ETB3 telebista kateko edukien arduraduna

IMANOL GARCIA

Hilaren 10ean aurkeztu zuten eta jarri zen abian ETB3 telebista kate berria. Iñako Gurrutxaga (Tolosa, 1966) da bertako edukien arduraduna. Orain arte telebistaren munduan kirol produkzioan aritu da.

Nola definituko zenuke kate berria?

Hitz gutxitan, nortasuna ematen dioten ezaugarriak dira, alde batek, tematikoa dela, ahal den gehiena 16/9 formatuan emitituko dugu eta estereoa. Edukien aldetik, hiru arlo jorratzen ditu: haurrak, Betizu markarekin; gazteak, Gaztea markarekin; eta kultura, EITB Kulturarekin. ETBk aspaldian dituen proposamen kulturalak *prime time* ordutegi batean emitituko ditugu. Eta ezaugarri nagusia da euskara hutsean izango dela.

Zergatik erabaki duzue euskara hutsean izatea?

EITB elkarte publikoa da. Aukera zegoen ETB1 eta ETB2 pribatu egiteko, baina Eusko Jaurlaritzak hartu zuen erabakia izan zen publiko jarraitzea. Eta, nolabait, eskaintza publiko hori ikusita nola-koa zen, ikusten genuen gabezi handia zegoela euskarazko eskaintzan. Hori izan da gure apustua, telebista euskaraz ikusteko beste aukera bat izatea, ez baitago asko, tamalez.

ETB1 eta zenbait tokiko telebista bakarrik emititzen zuten aurretik euskaraz.

Lur telebista digitaleko mapa tokiko telebistari dagokionez ez dakigu nola geldituko den. Baina, nik dakidanez, Bizkaian tokiko telebista euskaraz ikusteko aukera bakar izango da Hamaika taldearekin, horrek aurrera jarraitzen badu behintzat. Gipuzkoan pixka bat hobexago dago, baina halere eskaintza oso txikia izango da.

Euskaraz izateak baldintzatu ditu ETB3an izango diren marka horiek?

Berez marka horiek euskarazkoak izan dira hastapenetatik. Marrakzi bizidunak betidanik euskaraz izan dira. Gaztea Irratia eta Gaztea programak euskaraz izan dira beti, eta kultura proposamenak, batenbat kenduta, orokorrean denak euskaraz izan dira. *Hitzetik hortzera, EITB kultura, Teknopolis, Sautrela...* horiek euskaraz izan dira beti. Alde horretatik ez gaitu mugatu.



HITZA

«ETB3 euskarazko kate bat da eta eduki oso erakargarriekin»

Berez, aurretik zeuden produktu horiek bateratu dituzue.

Hori da. Nolabait EITB Kultura aterkia izan da produktu horiek babesteko eta duintasun eta ordutegi duin batekin emititzeko.

Marrakzi bizidunei dagokionez, ETB1ean ere ematen dira.

Mantenduko dugu marrakzi bizidunen emisioa ETB1ean. Ikusiko dugu nola funtzionatzen duen eta helburua da pixkanaka ETB1etik gutxitzea. Orain momentuz osagarri bezala emititzen ari gara. Adibidez ETB1ean ez dira emititzen 0 eta 4 urte bitarteko marrakzi bizidunak, adin horiek audientzietan ez baitira kontuan hartzen. Guk nola ez daukagun audientzia zenbakien presiorik, guk ETB3n ematen ditugunak 0 eta 4 urte bitartekoak dira.

Edukien arduraduna zara ETB3n. Zein da zure lana zehazki?

Kate osoaren programazioa koordinatzea. Programa aukeratu, non kokatuko den aukeratu... Gero marka bakoitzak bere arduraduna du eta horien lanak koordinatzen ditut.

Zuretzat aldaketa handia izango zen horrelako lana hartzea.

Aldaketa handia, bai. Sekulako aukera da proiektu bat hutsetik hastea eta taldetxo txiki baina kementsu batekin kate bat martxan jartzea. Gainera euskarazko kate bat da eta eduki oso erakargarriekin. Oso proiektu polita da eta oso ilusionatuta nago.

Nola ikusten duzu telebistaren gaur egungo egoera eta norantz doa?

Nik uste dut oso luzera izango ez

den epera, telebista ikusteko beste modu bat izango dugula. Pare bat edo hiru urte, lau urte asko jota, egoera erabat ezberdina izango da. Edukiak edozein aparatutan ikusteko aukera hori izango da etorkizunaren ezaugarri bat. Lur telebista digitaleko eskaintza, debaldekoa, askoz zabalagoa izango da. Berez, batez ere jende gaztea, ohitura daude beraiek kontsumitzen dituzten edukiak nahi duen lekuan, nahi duen momentuan eta nahi duen moduan ikusteko. Horrek baldintzatu du gure lana erabat. Programazio aldetik eromena izango da. Ez da izango betikoa, hau da, *Teleberri* ikusteko 21:00etan piztea telebista eta horrela. Hori aldatzen hasi da eta urte batzuk barru erabat ezberdina izango da.

Herrian egingo diren hainbat ikastaroetan izena emateko aukera

Irura ▶ Etxeetara taula bat bidali du Udalak eta hori erabili ahalko da izena emateko; epea hilaren 22an amaitzen da.

ERREDAKZIOA

Udalak jakinarazi duenez, herrian hainbat ikastaro egiteko aukera izango da. Etxeetara taula bat bidali du Udalak eta bertan interesatuek nahi duten ikastaroa adieraziz datuak jarri eta udaletxera eramane behar dute orria. Epea hilaren 22an bukatzen da.

Ondorengo ikastaroak daude aukeran: mantentzeko gimnastika, helduentzat, astelehena eta ostegunetan 17:00etatik 18:00etara; eskulanak, helduentzat, asteartetan, 16:00etatik 18:00etara; antzerkia, 8 urtetik gorakoentzat, ostegunetan, 18:00etatik aurrera; ziri-enkajea, helduentzat, astelehenean, 16:00etatik 18:00etara; egur taila, 12 urtetik gorakoak, asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara; xarea, 6 urtetik gorako mutilentzat, ostiraletan arratsalde eta larunbatean goizez; pala, 10 urtetik gorako neskentzat, asteazkenean, 18:45etik 20:00etara; dantza, haur eta gaztetxoentzat, astelehenean eta asteazkenean, 17:45etik 19:30era, eta ostiraletan 17:30etik 18:15era; eta yoga helduentzat.

Kultura arloko beste proposamenen bat izanez gero edo zalan-tzak argitzeko, 943 69 13 33 zenbakira deitu edo kultura@irura.net eta gazteirura@hotmail.com helbideetara idatz daiteke.

Ur partzuergoko arduradunekin bilera informatibo irekia, bihar

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Urak-eko gerentea den Iñigo Elosegirekin bilera informatiboa izango da bihar Herrialdean, 20:00etan, Udal Liburutegian. Uraren gaiari buruzko bilera informatiboa izango da eta Udalak herritar guztiei zabaldu die bilerara joateko gonbitea.

Egun uraren kudeaketa Udalak eramanen du. Gipuzkoako Urak partzuergotik zer zerbitzu ematen diren eta horien kostua zein izango den informazioa biltzeko balioko du biharko bilerak. Ondoren, Udalak deituta bilerak egingo dituzte uraren gaiari buruz herritar guztien artean erabakia hartzeko.

BERRIAREN edizio digitalean diserbuzale/programatzaile lanpostua beteazko pertsona bat behar da. (Enref. 200810 EH-DP)

Honako ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengaiaekin eskarmentza izatea.
- XHTML eta CSSrekin mokatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaritzen da:

- 12 hilabeteko kontratua liza dutekei.
- Lanari berehalak hasiera izateari.

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaziaz, urriaren 22a baino lehen.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Hilaren 25ean ospatuko den Tolosa Goxua azoka aurkeztu zuten atzo, Udaleko ordezkariak eta hiriko gozogileak. E. EZEIZA

Sei metro altuerako tarta erraldoia egingo dute Tolosa Goxua azokan

Aisia » Urtea amaitu baino lehen hiru gastronomia azoka ospatuko dituzte; lehendabizikoa gozo-gozoa izango da.

ESTI EZEIZA

Atzo goizean aurkeztu zituzten urte bukaera bitarteko ekimenak. Lehendabizikoa hilaren 25ean ospatuko da, eta Tolosa Goxua azoka izango da. Tolosako gozogintzan izen eta garrantzi handia duten bost gozotegiak izango dira protagonista bertan: Gorrotxategi, Casa Eceiza, Gorostidi, Gozona eta Saizar.

Tolosako gastronomiari produkturik gozoenak dastatzeko eta kalitatezko gozogintzako berritasunik interesgarriak gertu-gertutik ezagutzeko aukera izango da hilaren 25ean.

Goizean goiz jarrita eta ikusgai izango dira San Frantzisko pasealekuan Tolosako gozotegi tradi-

zionalenen postuak. Hauekin batera izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko beste hainbat gozogile, gustu guztiak asetzeko moduko produktuekin.

Ekimenarekin bat eginaz, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak karpa bat jarriko du eta 09:00etatik aurrera salgai jarriko ditu txokolate beroa eta pastak. Anoa bakoitzaren salneurria bi eurokoa izango da.

Azokarekin batera, hainbat ekimen izango dira

Hamaikagarren aldiz ospatuko da aurten Tolosa Goxua azoka. Baina betiko postuez gain, beste hainbat ekimen ere prestatu dituzte antolatzaileak.

Beotibar pilotalekuaren ondoko txurro-dendak gosari berezi bat eskainiko du 09:30ean. Izan ere, 2.015 txurro banatzeko asmoa dute bertaratzin direnen artean.

2.015 zenbakia aukeratu dute, Tolosa 2015 proiektua dela eta. Hau, Udalaren, herriko elkarten

eta tolosarren arteko etorkizuneko plan bat da. Honekin, herri eramangarriago bat lortu ahalizateko.

Hilaren 25eko ekimenekin jarraituz, egun horretan, Tolosako gozogileek tarta erraldoi bat prestatuko dute. Sei metroko altuera izango du, eta 1,2ko zabalera. Hamabi pisu izango ditu gozo erraldoi honek. Hemendik 7.000 zati banatuko dituzte 12:00etatik 13:00etara bitartean, San Frantzisko pasealekura gerturatzen direnen artean.

Azkenik, ekitaldi gehienengue izango den San Frantzisko pasealekuan, sagar-tarta lehiaketa jokatuko da. 10:00etatik 11:00etara bitartean, eraman beharko dituzte lehiakideek beraien tartak. Norgehiagokairekia da, eta parte hartu nahi dutenek, aurkeztutako postrearen errezeta erakutsi beharko dute.

Epaimahaiak tarta guztiak banan bana dastatuko ditu. Baina hori bai, ez dute jakingo bakoitzarena zein den. Aipatzekoa da, epai-

leak, postre eta gozogintzako adituak izango direla. Lan horretan ariko dira: Eva Argiñano, Lourdes Rekondo eta Jose Mari Gorrotxategi eta Allarizko gozogile batzuk.

Irabazleak Tolosako gozogintzako produktuekin hornitutako eta 200 eurotan baloratutako lote bat jasoko du. Bigarrenak berriz, 150 euroko balioa duen sorta. Sari banaketa 13:00etan izango da, pasealekuan bertan.

Hurrengo azokak

Urtea amaitu baino lehen beste bi gastronomia festa ospatuko dira hirian. Lehendabizikoa Babarrunarena izango da, eta hau azaroaren 19tik 23ra bitartean egingo da. Iaz 20.000 lagun baino gehiago izan ziren eta 700 bat kilo babarrun jan ziren.

Azken festa txuleta izango da. Hau abenduaren 5etik 8ra bitartean gauzatuko da. Aurten hirugarrenaldiz ospatuko da. Bainaberrikuntza ugari izango ditu jaialdiak.

Interpretazio tailerra egingo dute asteburu honetan Udala Musika Eskolan

Kultura » Leonardo Garcia Alarcon izango da saioen gidaria, eta antzinako musikari eskainiko dizkiote jardunaldiak.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak 2008ko urriaren 18 eta 19rako interpretazio tailer bat jarri du abian, oraingo honetan Leonardo Garcia Alarcon Argentinako irakasle ospetsuarekin, antzinako musikari eskainiko zaiona.

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan burutuko dira eskolak larunbat eta igandean. Ikastaro honi buruzko informazio zehatza Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren webgunean aurki daiteke: www.federagaf.net. Larunbatean, eskolak goiz eta arratsaldez izango dira: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igandeko saioak 10:00etatik 14:00etara izango dira.

Garcia Alarcon maisua

Leonardo Garcia Alarcon, klabezin-jotzaile argentinarra da, Genevako Kontserbatorioan *Maestro al Cembalo* ikasgaiaren irakasle eta Ensemble Cappella Mediterranea taldearen zuzendari. Ikastarotailer honetan, Tomas Luis de Victoria, Peter Philips, Claudio Monteverdi, Andre Cardinal Destouches, Georg Friedrich Haendel eta Johann Sebastian Bach maisuen eskutik hiru mende zeharkatzea ahalbidetuko duen egitarau polifoniko eredugarri bat landuz XVI, XVII eta XVIII. mendeetako parametro espeziifikoak zehatz-mehatz berarekin batera aztertzeraz gonbidatzen du.

Antzinako musikari buruzko mugimenduak, historizista ere deituak, musikaren historian eta artearenean oro har aurrekaririk ez duen iraultza sortu du estetiko ki musikaren munduan azkeneko 60 urtetan. Garcia Alarconek dituen helburuetatik, nagusienetakoa, musikari espezializatuen ezagupenen arteko zubi bat finkatu ahalizatearena da.

Tosalaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

Urkizu auzoa berpizteko eginkizun horretan, pauso handi bat eman dute

Gizartea » Lehen auzo bazkaria ospatzearekin batera, hitzarmena sinatu dute Udalak eta Alurtxiki Auzo Elkarteak.

ESTI EZEIZA

Pixkanaka pixkanaka, Urkizu auzoa berpizten ari dela esan daiteke. Horretarako, bultzada handia ematen ari dira auzotarrak. Joan den larunbatean, ibilbide luze horretan beste pauso bat eman zuten. Alde batetik, lehen auzo bazkaria ospatu zuten. 125 lagun inguru bildu ziren auzoaren erdigunean jarritako karpan. Bestetik, Tolosako Udalak eta Alurtxiki elkarteak hitzarmena sinatu zuten, Urkizu eta Auzo Txikiarekin garapenerako helburu zerranda gauzatzeko.

Egun Urkizun, Auzo Txikin eta Albizturko goiko aldean bizi direnak, nahiz bizitakoak elkartu ziren jaialdian. Parte-hartzaileak nahiz antolatzaileak oso gustura geratu ziren emaitzarekin, eta hurrengo urtean errepikatzeko asmoa azaldu zuten. Bazkalostea alaitzeko Arandia anaien trikitixa doinuak izan ziren nagusi. Bestetik, haurrek txotxongiloak egiten ikasteko aukera izan zuten, eta baita marrazteko ere.

Bazkari bat baino gehiago

Larunbateko ekitaldia etorkizuneko asmoak eta helburuak lortzeko abiapuntu izan zen. Bazkaria hasi aurretik, Tolosako Udaleko ordezkariak, eta auzokoeak, lanki-



Alurtxiki auzo elkarteak ordezkariak eta Tolosako Udalekoek larunbatean sinatu zuten lankidetzaren hitzarmena. HITZA



Festa egun polita ospatu zuten larunbatean, Urkizun. HITZA

detza hitzarmen bat sinatu zuten. Agiriaren sinatzaile izan ziren, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Pello Ezeiza Alurtxiki elkarteak lehendakaria.

Hitzarmenean adierazitakoaren arabera, «Alurtxiki auzo elkartearen helburua da Urkizu eta Auzoko txikiko bizilagunak antolatzeko modua egitea, auzotarren bizitza kalitate hobetzeko egin beharretan aktiboki eta arduraz parte hartzeko eta laguntzeko».

Ildo horretatik, elkarteak hainbat jarduerara burutzeko asmoa du, gizarte, kirol eta kultur arloetan.

Hitzarmenaren klausulak

Tolosako Udalak eta Auzotxiki elkarteak sinatutako agirian zenbait konpromezu hartzen ditu Udalak. Hala, 2009tik aurrera ondorengo gaiak bideratzeko asmoa du. Ekipamentuei dagokionean, baloiontzeko lokal bat ahalbidetuko du auzoan. Parkearen arazoa bideratzen saiatuko da, eta baita, frontoiaren konponketa ere. Bestetik, panel informatiboak jarriko dituzte auzoan eta hainbat eremutarako seinalizazioak. Baserrietan ur puntuak jartzeko aukera ere aztertuko dute, eta ur zikinen egoera eta kudeaketa sisteman egokia aztertu eta plan berezi bat egin.

Zerbitzuen arloari dagokionean, ur hornidurari buruzko azterketa eta beharren arabera planingintza egitea aurreikusten dute. Garraio arazoak konpontzeko, zerbitzu egoki bat bilatzen saiatuko dira. Neguari begira, elurretarako palaren zerbitzua zehaztuko dute, eta azkenik, auzo garbi eta txukun egon dadin, garbiketa eta mantenu maiztasunak definituko dituzte.

Hitzarmenean agertzen den hurrengo puntua kultur arlokoa da. Bertan zehazten denaren arabera, Udalak kontuan hartuko du auzo kultur ekintzak antolatzeko garaian. Bestetik, urtean bi ikastaro antolatzeko konpromisoa hartzen du eta ekintza nahiz jarduerak ezberdinetarako finantzamendua emateko aukera. Honez gain, auzo ezagutzera emateko eta erakartzeko ekimen berritzaileak antolatuko dituzte.

Auzoko bideen inguruan ere aipamen bat egiten da hitzarmenean, eta bertan dio, herri bideak berreskuratzeko lan egingo dela. Hauk zerrendatuz, sailkatuz, egoera eta konbenioak aztertuz. Hirigintzari dagokionean, etxebizitza politika aktiboa eta egokia bultzatuko dute Urkizun, plan berezi bat martxan jarri.

Auzotarrak kezkatzen dituen beste gai bat, eta agirian bildu dena, parte-hartzearena da. Hitzarmenean zehaztutakoaren arabera, Udalak AHTri buruzko informazio eskainiko ditu eta kalteak murrizteko aukerak aztertu. Bestalde, Tolosako eta Albizturko udalartxeen arteko elkarlana definitu behar da ekintzak burutzeko.

Auzo berpizteko lan horretan, ezinbestekoa da laguntza ekonomikoa. Hori dela eta, gizarte, kultur, kirol eta auzoko jaien jarduerak finantzatzeko partida bat jarriko du Udalak. Amaitzeko, agirian aipatzen den azken konpromezua da, Tolosako Udalaren webgunean, Urkizuko edukientzako toki berezi bat uztearena.

Hitzarmen honetan ageri diren ekintza eta lanak gainbegiratzeko eta bultzatzeko, jarraipen batzorde bat egingo da. Honek hainbat betebehari izango ditu, egitasmoak aurrera jarraitzeko.

Zazpi Astoren Gainean helduen bertso eskola martxan jarri da berriro

Alegia » Gaur bertan bilduko dira Intxurre elkartearen 20:00etan; bertan parte hartu nahi duenak gaur du aukera.

ERREDAKZIOA

Joan den ostegunean elkartu ziren ikasturte berriari forma eta itxura emateko asmoz, Alegiako Zazpi Astoren Gainean bertso eskolako kideak. Bileraren ondorioz, martxan jarri dira, eta hemendik aurrera Intxurre elkartearen bilduko dira 20:00etan, ostegunero (gaur).

Lehenengo bilera egin badute ere, ez du esan nahi bertara joan ez zirenak ezin direnik hemendik aurrera azaldu: «Nahi duenak nahi duenean etortzeko librea da, ongi etorria izango da». Beraz, bertso-tan ikasi nahiez gero azaltzea besterik ez da behar.

Asteroko helduen bertso eskola honetaz gain, umeen bertso-eskola ere martxan jarri nahian dabil-tza. «Baina oraindik dena zehaztu gabe daukagu».



laz ere bertso afaria egin zuten, Intxurre elkartearen. Jendetsua izaten da eta giro polita sortzen da. HITZA

Azaroan ekintzekin hasiak

Aurreko urteetan bezala, bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte. Orain, Alegian ospatuko den Aza-

ro Kulturalaren baitan, bertso-poteoa eta ondoren bertso-afaria antolatuko dituzte. Aurten Alegia bisitatuko duten bertsolariak, Unai

Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga dira. Intxurre elkartearen izango da afaria hau.

Afaldu aurretik egingo den ber-

tso-poteoan herriko trikitilariak izango dituzte.

Afarirako txartelak herriko ta-bernetan jarriko dituzte salgai hurrengo egunetan. «Esan behar da, lekua sobera ez dagoenez jendea bizkor ibiltzea komeni dela», txartelak mugatuak izango baitira.

Alegiako festa alternatiboetako egitarauan ere parte hartzen dute bertso eskolakoei, Bulebarrean

Zazpi Astoren Gainean eskolak umeen bertso eskola ere martxan jarri nahi du

saioa egingez. «Urtean zehar egiten ditugun ekitaldietatik garrantzitsuena dela esango genuke, taula gainean egiten dugulako eta herritarren aurrean. Hor kantatzen duena herriko bertsolari bezala baita-taia galditzen da».

Urtean zehar hainbat ekitaldi

Aurten ere, bertso-erakunde hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa dute, martxo inguruan egiten duten bertso-bazkaria (punta xamarreko bertsolariekin), bertso-paperekin lehiaketa (laugarrena izango dena), festa alternatiboetako saioa, sagardotegiko afaria... Urtean zehar halakoak egiteko ohitura dute bertsozale alegiar hauek.

Gipuzkoako Kantu Txapelketan Tolosaldeko bost ariko dira etzi

Villabona » Gurea Antzokian 18:00etan izango da txapelketa, eta bakarlari eta binaka ariko dira eskualdeko partaideak.

NEREA URBIZU

Euskaldunok dugun kantatzeko ohitura handia omen da. Horren adibide bat, etziko ekitaldia da: Gipuzkoako Kantu Txapelketa. Dagoeneko bigarren kanporaketa izango da eta Tolosaldeko parta-ideak handia izango da. Villabona-ko Gurea antzokian bilduko dira 10 parte-hartzaile 18:00etatik aurrera; horietatik bost eskualdeko-ak izango dira.

Eskualdeko bost bikote eta ba-карлари animatu dira aurtengo Gipuzkoako Kantu Txapelketan parte hartzera, Villabonari dago-kionez behintzat, baina hauekin batera Gipuzkoako beste hainbat txokotatik animatutako beste asko hurbilduko dira Villabonara. Her-ritarrak ere badira: Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe, hain zuzen ere.

Berasaluzek eta Iñar Sastrek (Irura) *Hitz galduak* (Jon Altunak asmatu) eta *Besterik ez naiz* (Zea Mays) kantauk egingo dituzte. Berasaluzek eta Aranzabek elkarre-

kin Sastrek sortutako kantua es-kainiko dute: *Gertu izango nauzu*. «Iaz hartu genuen parte lehen al-diz. Aurten, herrian bertan izanda, ilusio handiagoarekin abestuko dugu, motibatuago aterako gara».

Bakarlariek ere bai

Ez dira berriak bakarka abesten aterako diren parte-hartzaileak, esperientzia pixka bat badute, gu-txienez behin taularatu baitira txap-elketa honetan. Iñaki Barriolaren kasua da, adibidez: berastegiarrak Etzakiten *Zu galdua* eta Ken Zaz-piren *Irudi biluztuak* abestuko du: «Garazi Esnaolak pianoarekin eta akordeoiarekin eta Amaia Pagolak gitarrarekin lagunduko didate».

Berastegiko Maialen Etxeber-riak aurten 3. aldiz kantatuko du: «Ezagutzen dut txapelketa eta ani-matuta nago». Aurten Benito Lert-xundiren *Gure bide galduak* kan-tatuko du eta Garazi Esnaolak pia-noa joko du: «Ahizpak lagundu zidan kantua aukeratzeko».

Oihane Sarasola ibartarra ere ariko da txapelketan, eta *Maite dut* (Urtz) eta *Loa-loa* kantu herrikoia abestuko ditu, piano doinuarekin.

Garazi Egiguren Zumaian

Joan den kanporaketan Tolosako Garazi Egigurenek hartu zuen parte Zumaian, eta «oso gustura

gelditu nintzen egindakoarekin». Garazi Esnaolak lagundu zion pia-noarekin eta «asko gozatu genuen. Urduri, saioa hasi zenean nengo-en, baina gure txandaren unean urduritasuna joan egin zitzaidan, neure burua kontrolatzen jakin nuen. Gure helburua bete genuen, hau da, egin dakoarekin gustura gelditzea, genekien moduan egin genuen».

Egiguren tolosarrak *Bueltatzen* (Berri Txarrak) eta *Zuretzat ni-tuen arrosak hazi* (berak sortuta-koa) abestu zituen. Finalera pasa-tuz gero, bi kantuetako bat aurkeztu beharko du, epaimahaiak erabakitzen duena, alegia. «Egia esan biak oso gustura kantatu ni-tuen, baina sortutakoarekin aho-tsa gehiago erakusten da».

Txapelketak 12 urte

Finala azaroaren 9an izango da, Donostiako Antzoki Zaharrean. Aurretik Azkoitian azken kanpo-raketa jokatuko da hilaren 25ean eta bertan erabakiko da nor pasako diren final handira. Horretarako, puntuaketa berezi bat egingo dute epaimahaikideek.

Dagoeneko 12 urte bete ditu Gipuzkoako Kantu Txapelketak, eta urtero bezala, Tolosaldeko jende-aren presentzia ez da aurten falta-ko.

Pasabanek Shisha Pangma ez du igoko

Tolosa » Haize bortitza eta temperatura baxuak direla medio, espedizioa bertan behera uztea erabaki du mendizale tolosarrak.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre mendizaleak Tibetera bideratu zi-ren Shisha Pangma igotzeko as-moz, hilaren 5ean Manaslu mendi gailurrera igotzea lortu ondoren. Baina azkenean bertan behera utzi dute saiakera, eguraldi txarra dela medio. Haize gogorra eta hotz handia egiten zuen gailurrera joa-teko.

Pasabanek adierazi duenez, «udaberrira arte atsedean hartuko dut eta orduan Kangchenjunga igotzen saiatuko naiz».

Shisha Pangman (8.046 metro) bere hamabigarren zortzimilakoa egin nahi zuen egunotan, baina utzi egin du saioa.

Hilaren 5ean, Manaslu (8.167) igotzearekin (Asier Izagirrerekin batera), bere hamaigarren zor-tzimilakoa lortu zuen.

Hiru zortzimilako falta zaizkio orain tolosarrari. Munduan lehen emakumea litzateke hamalauak igotzen.

Aurreko egunetan ere hotza

Shisha Pangmako oinarriko kan-pamentuan hiruro egunetz izan da espedizioa, materialaren zain ego-nez. Hasiera batean, joan den aste-lehenara arte egunak eguzkitsuak izan zituzten, eta eguraldia haien alde izango zutelakoan zeuden. Hala ere haize bortitza bazebilen orduan, Pasabanen arabera, 50-70 kilometro ordukoa (gailurrean).

Astean zehar haizearen indarra jaistean zain egon dira, kanpa-mendutik atera eta gailurrera igotzeko asmoekin, baina ez da posi-ble izan. Egun horietan sabeleko arazoak izan dituzte, oraindik ez dakiten arrazoiengatik.

Pertsona bat behar da Tolosaldeko kafetegiko-okindegiko baterako 616 73 28 97 Bidali zure cv: barmen@hotmail.es



Alurr dantza taldeak hainbat ikuskizun prestatu ditu bere ibilbidean zehar. HITZA

Alurr dantza taldeak 'Sua' ikuskizun berria aukeztuko du Leidor antzokian

Ibarra » Azaroaren 16an eskainiko dute estreinakoz ikuskizun berria; sarrerak salgai daude jada Servikutxaren bidez.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Alurr dantza taldeak prest du jada bere ikuskizun berria, *Sua*. Edu Muruamendiarek, Katixa Pereak eta dantza taldeko kide gazteek osatu dute koreografia eta jantziak, berriaz, Ramon Garcia diseinatu ditu. Ekipo Teknikoa SEIk osatzen du eta efektu bereziak eta argiztapena Asier Izagirren ardurara izango dira.

Sua ikuskizunak izen bereko film man du oinarri, hain zuzen *Eneko Haritza* film laburra egin zuen Ibarako, Tolosaldeko eta Algortako gazteek osatutako talde berak egindakoa. 1609. urtean Lapurdin

gertatutakoak du ardatz filmaren istorioak.

Alurr dantza taldeak jakinarazi duenez, taldean «beti zerbait desberdina egiteko gogoarekin» sortu zen *Sua*. Ikuskizun berria «Alur- rren proiektua» izatea lortu nahi zuten, «guk asmatutako eta sortu- tako zerbaib», gaineratu dute. Hori- rik horrela, dantza taldeko zen- bait kide filmaren gidoilariarekin jarri ziren harremanetan «zazpi hilabetetan hamaika bilera» egi- naz eta azkenean, filmaren gidoia- ren laburpena egin ostean, lortu zuten lanaren hari nagusia osa- tzea.

Dantza eta jantziak

Filmaren sustraiak behar bezala helarazteko dantza eta jantzietan arreta berezia jarri dute dantza tal- dekoek.

«Bi indarren arteko gatazkan datza filmaren oinarria: herriare-

na eta jauntxoena. Bi bizimodu desberdin. Sua bera irudikatuko dugu hasieran ematen digun bel- durra (garai hartako suaren esa- nahia) eta bukaeran suak ematen digun indarra edo itxaropena adie- razteko», azaldu dute zentzu hon- etan Alurrekoek.

Sorginek ere badute euren lekua ikuskizunean, nahiz eta ez diren akelarreen inguruko pasarteetan gorpuztuko: «Garai hartan nola ibiltzen ziren; isilpean, ezkutuan eta jarraituak, adierazi nahi dugu. Ez ziren emakume txoro batzuk, garai hartako emakume aurrera- tuenak baizik. Hori dantzen bidez adierazi nahi dugu; emakumearen liberazioa, sentsualitatea eta abar».

Sua ikuskizuna azaroaren 16an, igandea, eskainiko dute Tolosako Leidor antzokian 19:30ean. Sarre- rak salgai daude jada Kutxako Ser- vikutxa zerbitzuaren bidez.

@ Iritziak, azken ordukoak, inkestak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO web gunean eskualdeko azken albisteetan berri izango duzue eta baita gure inkes- ta, elkarrizketa digital eta gainon- tzeoetan parte hartzeko aukera ere. Zeuen iritziak ere argitaratu ahal dituzue bertan. Era berean, pasa berri den Kilometrotako bi- deo zein argazkiak ere ikusi ahal dituzue HITZAKO web orrialdean:

www.tolosaldekohitza.info

Elkartasun Eguna ospatuko dute azaroaren 1ean

Lizartza » Herritar talde batek antolatu du festa urtean zehar antolatzen dituzten ekitaldientzako dirua bildu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Lizartzako herritar talde batek El- kartasun Eguna antolatu du azaro- aren lerako.

Besteak beste, zikiro jatea izan- go dute eta bertan ateratzen duten diruarekin urtean zehar antolatu ohi dituzten ekitaldi desberdinetar-ako dirua bildu nahi dute. Bazka-

ria 14:30ean izango da eta txartelak hilaren 23a baino lehen erosi behar dira 22 euroren truke.

Bazkarirako txartelak

Lizartzako, Oresako, Tolosako, Irurako, Anoetako eta Ibarako ohiko tokietan jarri dituzte salgai txartelak eta baita Arribeko gaso- lindegian ere.

Zikiro jateaz gain eguna alaitze- ko hainbat ekitaldi antolatu dituz- te; dultzaineroak izango dira 10:00etan, zanpazarrak 13:00etan, txaranga 14:00etan eta Txan Ma- goaren eta trikitilarien emanaldiak 18:00etan.



Joseba Antxustegietxarte hitzaldia eskainiko du gaur. HITZA

Antxustegietxarte komikilaria izango da gaur Kultur Etxean

Ibarra » 'Komikia nola sortu' izeneko hitzaldia eskainiko du Galtzaundi aldizkariko komikilariak 18:30etik aurrera.

lehiaketara lanak aurkezteko epea. Azaroaren 26ra arte bidali ahal dira Galtzaundi Euskara Tal- dearen egoitzara (Tolosako Nafa- rroa Etorbidea 6-Behea).

Sariak

Bi mailatan har daiteke parte (18 urte beherakoena eta gorakoena) eta hauek dirasariak: lehen mailan sari nagusia 400 euro eta lanaren paperezko zein webguneko argi- lehiaketaren harira Galtzaundi al- dizkariko Joseba Antxustegie- txarte komikilariaren hitzaldia an- tolatu dute gaurko. Hitzordua 18:30ean izango da Kultur Etxean eta *Komikia nola sortu* izango du hizpide. Era berean, *Euskarazko Komikien Erakusketa* ere zabalik da Kultur Etxean hilaren 24a bi- tarte. 17:00etatik 20:00etara ikusi daiteke.

Gogoratu behar da ere, oraindik ere zabalik dela Galtzakomik

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai ikaztegiatan. Herriaren erdigune- an kokatua. Igozailua eta bi balkoi eder ditu. Deitu iluntzeetan 628 698 807 edo 666 615 766 telefo- no zenbakietara.

■ **Etxebizitza.** Etxea salgai Tolosa-

ko Alde Zaharrean. Merkea. Obrak egin behar da. Interesatuek deitu: 657 230 011 edo 634 919 482.

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperien- tzia duen kamarera behar dugu. Igan- deetan jai. 650 043 139.



Gaur 19:30ean lore eskaintza egingo zaie Lasa eta Zabalarri Benta-Haundin. Etzi manifestazioa egingo da Tolosako Triangulotik irtenda 19:00etan. IMANOL GARCIA

Lasa eta Zabalaren erailketaren 25. urteurrenean, errudunak aske

Politika » 365 urteko espetxe zigorra jarri zieten Galindo, Elgorriaga, Vaquero, Bayo Leal eta Doradori; egun ez dago inor preso.

ASIER IMAZ

1983ko urriaren 16ean, goizaldean autoaren bila zihozazela, GALen bi kidek Joxean Lasa eta Joxi Zabala, errefuxiatu tolosarrak bahitu zituzten Lapurdiko hiriburuan, Baiona Tüpián. Tolosako bi gazte-

ekin zer gertatu zen 1995. urtean eta 2000. urtean argitu zen; Lasa eta Zabalaren gorpuak identifikatzean eta errudunetariko bost zigortzean.

Eraiketaren 25. urteurrenaren harira, gaur 19:30ean, lore eskain-

tza egingo diete Benta-Haundin. Etzi, 19:00etan, manifestazioa egingo dute Triangulotik abiatuta.

«Bi arrain ertain erori dira»

«Bi arrain ertain erori dira». Hauek izan ziren Guardia Zibila-jeneralak eta Intxaurrendoko buruak, Enrique Rodríguez Galindok, garai hartako Gipuzkoako gobernadore zibilaria, Julen Elgorriagari, esan zizkion hitzak bahiketen berri ematerako unean.

1983ko urriaren 17an, Lasak eta

Zabalak hartu behar zuten autoa ez zela mugitu ikustean, ibilgailuaren jabeak desagerketaren berri eman zuen. 80. hamarkadan «gera zikina» gori-gorian zegoen eta bitolosarren bahiketa segidan egoera horren barruan kokatu zen.

1984ko urtarrilaren 21ean, ezezagun batek Alacante Irratira deitu zuen GALen izenean hitz egiten zuela esanaz. Honek, aurreko egunean bi euskal gazteak Alacanteko paraje batean hil zituztela aipatu zuen.

«Kare bizian lurperatuak»

«Forensea eta guzti izutu zen Buset (Herrialde Katalanak) herrixkan agertu ziren bi gorpuzkinen egoera ikustean». Bahituak, torturatuak, tiroz erailak eta kare bizian lurperatuak.

1985 urtea zen. Ehiztari batek bi gorpu topatu zituen, baina ez zituzten identifikatu eta Alacanteko justizia epaitegiak kasua artxibatzea erabaki zuen. Bigorpuak 1995. urtean identifikatu zituen Francisco Etxeberria forenseak. Tartean, «administrazioaren utzikeria, akats baten ondorioz ez baitzuten erraustu bi gorpuak» eta Alacanteko polizia etxeko buruaren, Jesus Eugenio Garcíaren, mesfidantza: «Beti pentsatu zuen bi militante abertzale desagertuen gorpuak zirela». Jesus Eugenio García 1999. urtean hil zen, Auzitegi Nazionalean deklaratzeko ari zela.

Guardia Zibilak eta politikoak

Joxi Zabala eta Joxean Lasa bahitu eta hiltzeagatik guztira 365 urteko espetxe zigorra ezarri zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak 2000. urtean lau Guardia Zibila eta politikari bati. Gaur egun urte horretan epaituak izan ziren guztiak kalean aurkitzen dira.

Hauek dira Auzitegi Nazionalak zigortu zituenak: Enrique Rodríguez Galindo (75 urteko espetxe zigorra. Beteak: 5 urte eta 5 hilabete); Julen Elgorriaga (75 urteko espetxe zigorra. Beteak: urtebete eta hamar hilabete); Angel Vaquero (73 urteko zigorra. aske dago); Enrique Dorado (71 urteko zigorra. 2002an irten zen espetxetik) eta Felipe Bayo Leal (71 urteko zigorra. 2002. urtean kalera irten zen).

Gutunak

25 urte beranduago, Joxi Zabala eta Joxean Lasa oroitzen eta maitatzen jarraitzen dugu

Ez dugu egutegian begiratu beharrik, bihotzean zauri gisa markaturik dugun eguna gogoan izateko, Joxi eta Joxean bahitu, torturatu eta erail zituzteneko 25. urteurrena betetzen den honetan, gaur hain zuzen ere.

Ez Tolosak, ez Euskal Herriak ere, ez du inoiz ahaztuko, Guardia Zibila, gerra zikinaren izenean eta Espainiaren babespean, buruturiko bahiketa, torturak eta erailketak.

Hotzikarak, inpotentzia eta amorrua nagusitu ziren duela 13 urte ere gure artean. Hotzikarak sentitu genituen Tolosako kanpantxan herri honen zaintzaileak omen diren zakur zipaioak oldartu zirenean senitarteko eta lagunen kontra, eta horren aurrean, eta ia erdi ahazturik dagoen Galindo jeneralaren kaleratzearen aurrean, inpotentzia eta amorrua

ere. Herri honek, ez ditu bere semeak ukatuko, ez ditu ekintza hauek ahaztuko, ezta barkatuko ere.

Desagerketa, tortura, biak dira izua, beldurra eta heriotzaraino erabiltzen diren tresnak euskaldunon aurka ere. Gaur egun, atxilotetak ezkutuan ematen dira, ez da urte luzetako desagerketarik ematen, baina inor enteratu gabeko atxilotetak ematen dira. Era batean zein bestean, tortura ez da desagertzen. Atxilotutakoen izugarrizko kontakizunak ari gara entzuten azken aldi honetan, komisaldietatik lehertuta, hautsita ateratzen den jendearena. Tortura ez dute ikertzeko bakarrik erabiltzen, herritarren artean, gazteen artean beldurra sortzeko baizik, beraiekin bat ez datozen ideia eta planteamendu politikoa eta borrorak jendeak alde batera uzteko, esanekoa bihurtu eta printzipioei uko egin diezaion.

Gehienok, torturaren seinaleak ikusi ditugu gure lagunengan, seme-alabengan, anai-arreben-

gan eta izugarrikeria horren leku-kogara. Torturatzen dutela esateko gaude eta hori salatu nahi dugu. Bitxia da biolentziak horrenbeste eta torturaz horren gutxi hitz egitea, tortura estatuarren muineko biolentzia izanik.

Horrek guztiak erakusten du arduradun nagusiek tortura ez-kutatzeo ahalmena ez-eziz, nahi adina laguntzaile ere badutela inguruan, Estatu Espainiarra eta dagozkion botereak, legegilea, exekutiboa eta judiciala, Segurtasun indarrak, hala nola Guardia Zibila, Ertzaintza eta Polizia Nazionala, Gasteizko Gobernua eta Barne Saila besteak beste. Komunikabide gehienak ere, eta nola ez, bere isilpeko kidetasuna erabiltzen neurri honetako zitalkeria etengabea gauzatzea posible egiten duena.

Torturagizarte honetako arazo handienetako bat da, fenomeno konplexua da, eta denok ukitzen gaitu. Torturaren alderik okerrrena ez baita nortzuk sufritzen duten, onartzen dutenengan baitago

alderik okerrrena. Hori da ikusten ez den alderdi maltzurra. Lehenengo horiek zuzenean hondatu nahi dituzte, bigarrenei ordea, pixkanaka pixkanaka kontrolatzen dizkiete sentimenduak, sentsibilitate eta pentsamendu, txotxongilo mantsoetan bihurtzen diren arte. Kritika gaitasunik eta altxatzeko ahalmenik gabeko jendea.

Torturaren gaitzarekin bukatu behar dugu. Lakra horrekin bukatu behar dugu.

Borroka hau eta Joxi eta Joxeane borrokatutako eta bizia emanterainoko arrazoiak, inoiz baino ageriagoak daude gaur egun ere.

Gaur, 25 urte beranduago Joxi eta Joxean oroitzen eta maitatzen

jarraitzen dugu. Gaur, orain 25 urte bezala, Euskal Herria burujabea, sozialista eta euskaldun baten eraikituzak borrorak jarraitzera bultzatzen gaitu ere. Gaur, orain dela 25 urte bezala ere zera oihukatzen dugu: «Indar okupatzaileak, guardia zibila, poliziak, mertzenarioak, torturatzzaileak: Alde Hemendik! Ez ditugu nahi eta bakean utz gaitzate!»

Bukatzeo, gaur, urriak 16, Joxi eta Joxeane omenez eraikitako Benta Haundiko monolitoaren aurrean lore eskaintza egingo zaie 19:30ean. Eta etzi, urriaren 18an, manifestazioa egingo da 19:00etan Triangulotik irtenda Tolosako kaleetatik barrena.

Mikel Zabala. (Tolosa).

Beti alai

jateak

Garaian garaiko janariak

Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur Asteak

■ **Tolosa.** San Esteban: XX. Kultur Astea: 19:00etan VI. Patata tortilla lehiaketa; ondoren, luntxa; 22:30ean SOS *temible* antzezlanaren Txiflano Inproducciones antzerki taldearen eskutik.

Deialdiak

■ **Anoeta.** Idoia Santxez ipuin kontari ariko da liburutegian 17:30ean. Ondoren, 18:30ean Hernialden izango da. Ipuin hauek 2-10 urte bitarteko umeentzat zuzenduak daude.
■ **Tolosa.** Joxean Lasa eta Joxi Zabalen desagerepenaren XXV. urtemugan ekitaldia izango da Olarrain auzoan, bere oroitariaren aurrean 19:30ean.

Hitzaldia

■ **Ibarra.** Banka etikoaz erlazionatutako Fiare proiektua aurkeztuko du Juan Garibik Kultur Etxean 19:30ean.
■ **Tolosa.** La Escuela dela Risa Inteligentek hitzaldi-tailerra emango du Kultur Etxean. *Barre egiten ikastea bizitzen ikastea* da saioak izango duen izenburua eta 20:00etan hasiko da. Sarrera doakoa.

Zinema

■ **Tolosa.** Jean Louis Godard zuzendari frantziarraren *A bout de souffle* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Monumentuz monumentu, ikasiz

Tolosa » Laskorain ikastolako LH 6. mailako ikasleek herriko kaleetatik ibilbidea egin zuten Iñaki Epelderren gidaritzapean.

ERREDAKZIOA

Kultura barreiatu dago herriko kaleetan eta eskola polita bilaka daiteke herriko ikasleentzat. Bertako eraikuntzek, kaleek eta monumentuek informazio asko gordetzen dute euren atzean.

Hain zuzen ere, herriko kulturaz gehiago ezagutzeko, aurreko ostiralean Laskorain Ikastolako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek Tolosako eskulturen ibilaldia burutu zuten. Iñaki Epelde artista tolosarra eta eskulturen proiektuko kidea izan zengidari, azalpenak interesgarriak emanez ikasleei.

LH 6. mailako ikasleek artea eta artistak ari dira lantzen ikastolan eta, hain zuzen ere, eskultura horietako batzuk egin dituzte eskulana gisa.



Ikasleak Nestor Basterretxearen *Goldea* eskulturaren aurrean Iñaki Epelderren azalpenak entzuten. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

"El Caserio" zartzueta ikusteko
2 sarrera zozketan
deitu eta eskuratu



Larunbata o. urriak 19
20:30ean
Tolosako Leidorren
Tolosako Orfeoia eskainita



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu gogoz zenbaki honetara: **943 65 56 95**